

EHUren GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA

EHUN ETA HOGETA HAMARGARREN SESIOA BI MILA ETA ZORTZIKO URRIAREN 22AN OSPATUTAKOA

IRAKASLEEN ETA IKERTZAILEEN ORDAINSARI OSAGARRIAK
ESLEITZEA ETA HAIEN MERITUAK EBALUATZEA ESKATZEKO
DEIALDIA (II)

"209/2006 Dekretua, urriaren 17koa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen ordainsari osagarrien ingurukoa; 209/2006 Dekretuaren 8. artikulua aztertzen duen ebaluazio-protokoloa, UNIQVAL Euskal Unibertsitatearen Sistemaren Kalitatea eta Akreditazioa Ebaluatzen duen Agentzia; eta bestelako araudi orokorra, aplikatzea dagokiona IKUSIRIK.

EHUren Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak

XEDATZEN DU

Ordainsari osagarriak esleitzea eta meritua ebaluatzea eskatzeko II deialdia onartzea eta argitaratzea, izaera bateragarria ez duena, ondorengo

OINARRIEKIN

Lehen.- Deialdiaren xedea.

1.- Deialdi honen xedea Pertsonal Irakasleen eta Ikertzaileen (PII) merituen ebaluazioa egitea da, haiei ordainsari osagarriak esleitzeko helburuarekin. 209/2006 Dekretuak, urriaren 17koa, ordainsari osagarriei buruzkoa, dioenean oinarrituko da esleipena, eta UNIQVALEK, Euskal Unibertsitatearen Sistemaren Kalitatea eta Akreditazioa Ebaluatzen duen Agentzia, onetsitako ebaluatze protokoloaren arabera gauzatuko da.

2.- Ordainsari osagarriak meta daitezkeen hiru mailatan eta pixkanakako tramuetan sailkatuko dira. Hau da:

C maila: EHUari eskainitako lan profesionala saritzeko.

B maila: Kalitatea eta etengabeko hobekuntza saritzeko.

A maila: Bikaintasuna saritzeko.

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

Bigarren.- Ordainsari osagarrien esleipena jasotzeko merituen ebaluazioa eska dezakete:

1.- EHUko irakasleek eta ikertzaileek, bai funtzionarioak direnak bai administrazioko kontratua zein laneko kontratua dutenak, eta deialdiaren datan zerbitzatzen ari direnak edo 2005eko urtarrilaren 1az geroztik jardun dutenak.

2.- EHUko irakasleek eta ikertzaileek, bai funtzionarioak bai administrazioaren kontratua edo lan kontratua dutenak eta zerbitzu aktiboan ez baina deialdiaren datan plaza edo kontratua gordetzeko eskubidea dutenak. Ordainsari osagarriak jaso ahal izateko merituen ebaluazioa eska dezakete zerbitzu aktiboan sartu arte ordainsaria jasotzeko eskubidea ez badu ere.

3.- 2007ko urtarrilaren 26an ospatu zen EHUren Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurako Akordioz onetsitako deialdian osagarriak eskatu zituztenek ezingo dute berriro aurkeztu aurreko ebaluazioa egin zenetik bost urte igaro arte.

Hirugarren.- C mailako osagarriak.

1.- C maila, Euskal Herriko Unibertsitateari eskainitako lan profesionala saritzekoa dena, ondorengo bi tramuz dago osatuta:

C1, EHUan hiru urtez lan egin eta gero eskatu ahal izango dutena.

C2, EHUan zazpi urtez lan egin eta gero eskatu ahal izango dutena.

2.- Horretarako, 2007ko abenduaren 31 arte eskainitako zerbitzuak hartuko dira kontuan, Bigarren bat Xedapen Iragankorrek dioena galdu gabe, 209/2006 Dekretuaren azken puntua, urriaren 17koa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen ordainsari osagarrien ingurukoa.

3.- Arestian aipaturiko denbora zenbatzeko, zerbitzu aktiboaren balio bera izango dute zerbitzu berezien egoerak eta seme-alabak zaintzeko eszedentziakoak edo egoera baliokideak lan BGParen kasuan.

Laugarren.- C mailari dagozkion merituen ebaluazioa eskatzeko aurkeztu beharko den dokumentazioa:

1.- EHUan zerbitzuak eskaintzen direla egiaztatzea. Egiaztatze hori ofizioz egingo da hari dagokion EHUko BGParen kudeaketa-zerbitzuaren bitartez.

2.- Bere irakasletzan txosten negatiborik ez egotea eta irakasletzari buruzko inkestetan balorazio negatibo ugari ez egotea arrazoitu beharko da, Irakasleen Errektoreordetzak igorritako ziurtagiri bidez, kasu bakoitzari dagokion Departamentuaren Kontseiluaren txostenaren ondorioz.

3.- Aurreko atalean aipatutakotik at geldituko dira kargu akademikoak bete behar izan edo liberazioak izan dituztelako (euskara ikasteko, sindikatuetan

jarduteko, denboraldi sabatikoa, irakasle edo ikerlari gisa eguneratzeko, etab.) irakasletzan jardun ez dutenak denboraldi batez, irakasletza guztiz edo zati batean uzteko eskubidearekin. Zerbitzu aktiboa aldatzen ez duten kasu horietan, ez da beharrezkoa izango txosten negatibo eza egiaztatzen duen agiririk aurkeztea, nahikoa baita langile interesatuak irakasletzatik at zerk eduki duen arrazoitzearekin.

4.- Artikulu honen bigarren atalak aipatzen duen ziurtagiria ez da beharrezkoa izango langileak zerbitzu berezien egoeran edo seme-alabak zaintzeko eszedentzia egoeran egon denean, edo kontratatutako BGParen egoera baliokidean, nahikoa baita langile interesatuak irakasletzatik at zerk eduki duen arrazoitzearekin.

5.- Departamentuaren hasierako txostena negatiboa denean, modu sinesgarrian jakinaraziko zaio hori irakasle kaltetuari eta 10 eguneko epea emango zaio bere interesak defendatzeko egokiak iruditzen zaizkion alegazioak gauzatzeko.

Interesatuaren alegazioen arabera, Departamentuak behin betiko erabakia hartuko du.

Bai hasierako txostena, bai behin betikoa, negatiboak direnean, arrazoituak izan beharko dira.

6.- Irakasleen Errektoreordeak jakinaraziko die txosten negatiboek kaltetutakoei. Jakinarazpen horretan, txostenaren aurka zein errekurtsio aurkez daitekeen, zein organoren aurrean eta zein epetan adieraziko da.

Bosgarren.- Ikerlarien kasuan, C mailari dagozkion meritua ebaluatzeko aurkeztu beharko den dokumentazioa.

1.- EHUan zerbitzuak eskaintzen direla egiaztatzea. Egiaztatze hori ofizioz egingo da hari dagokion EHUko BGParen kudeaketa-zerbitzuaren bitartez.

2.- Interesa dutenek beren ebaluaziorako aurkeztuko diren meritua egiaztatzen dituzten dokumentu guztiak aurkeztuko dituzte, baina ez dira dokumentu originalak atxikiko, gero ez baitira itzuliko. C tramua esleitzeko, deialdi honetan, beharrezkoa izango da dagokien Departamentuko Kontseiluaren aldeko txostena aurkeztu beharko da, betekizunak betetzen dituela ziurtatzen duena.

Seigarren.- B mailako osagarriak.

1.- B maila, kalitatea eta etengabeko hobekuntza saritzekoa, honako hiru tramuez dago osatua:

B1, gutxienez 5 urtez EHUan lan egin dela ziurtatuz gero, gutxienez C1 tramua eta 25 puntu dituen.

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

B2, gutxienez 10 urtez EHUan lan egin dela ziurtatuz gero, gutxienez C1 eta C2 tramauk eta 50 puntu dituen.

B3, gutxienez 10 urtez EHUan lan egin dela ziurtatuz gero, gutxienez C1 eta C2 tramauk eta 75 puntu dituen.

2.- Horretarako, 2007ko abenduaren 31 arte eskainitako zerbitzuak hartuko dira kontuan, Bigarren bat Xedapen Iragankorrak dioena galdu gabe, 209/2006 Dekretuaren azken puntua, urriaren 17koa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen ordainsari osagarrien ingurukoa.

3.- Arestian aipaturiko denbora zenbatzeko, zerbitzu aktiboaren balio bera izango dute zerbitzu berezien egoerak eta seme-alabak zaintzeko eszedentziakoak edo egoera baliokideak kontratatutako BGParen kasuan.

Zazpigarren.- B mailari dagozkion merituen ebaluazioa eskatzeko aurkeztu beharko den dokumentazioa:

1.- EHUan irakasletza-, ikerketa- eta kudeaketa-zerbitzuak eskaintzen direla egiaztatzea. Egiaztatze hori ofizioz egingo da hari dagokion EHUko BGParen kudeaketa-zerbitzuaren bitartez.

2.- Interesa dutenek beren ebaluaziorako aurkeztuko diren merituen egiaztatzen dituzten dokumentu guztiak aurkeztuko dituzte, baina ez dira dokumentu originalak atxikiko, gero ez baitira itzuliko.

3.- Hala ere, ez da beharrezkoa izango 1999ko otsailean ospatu zen Gizarte Kontseiluaren bilkuran onetsitako deialdiaren arabera tramauk onartuta dituzten irakasleek esleipen haiek eragin zituzten merituen frogagiriak aurkeztea. Nahikoa izango da orduko sariaren agiria aurkeztea eta eskaerari zegokien merituen aipatzea.

Zortzigarren.- A mailako osagarriak.

1.- A maila, bikaintasuna saritzekoa, eta gutxienez 10 urtez EHUan lan egin dutela egiaztatzen dituztenek eska dezaketena, bi tramuz egongo da osatuta, A1 eta A2.

2.- Horretarako, 2007ko abenduaren 31 arte eskainitako zerbitzuak hartuko dira kontuan, Bigarren bat Xedapen Iragankorrak dioena galdu gabe, 209/2006 Dekretuaren azken puntua, urriaren 17koa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen ordainsari osagarrien ingurukoa.

3.- Arestian aipaturiko denbora zenbatzeko, zerbitzu aktiboaren balio bera izango dute zerbitzu berezien egoerak eta seme-alabak zaintzeko eszedentziakoak edo egoera baliokideak kontratatutako BGParen kasuan.

Bederatzigarren.- A mailari dagozkion merituen ebaluazioa eskatzeko aurkeztu beharko den dokumentazioa:

1.- EHUan irakasletza-, ikerketa- eta kudeaketa-zerbitzuak eskaintzen direla egiaztatzea. Egiaztatze hori ofizioz egingo da hari dagokion EHUko BGParen kudeaketa-zerbitzuaren bitartez.

2.- Interesa dutenek beren ebaluaziorako aurkeztuko diren merituen egiaztatzen dituzten dokumentu guztiak aurkeztuko dituzte, baina ez dira dokumentu originalak atxikiko, gero ez baitira itzuliko.

3.- Hala ere, ez da beharrezkoa izango 1999ko otsailean ospatu zen Gizarte Kontseiluaren bilkuran onetsitako deialdiaren arabera tramuak onartuta dituzten irakasleek esleipen haiek eragin zituzten merituen frogagiriak aurkeztea. Nahikoa izango da orduko sariaren agiria aurkeztea eta eskaerari zegokien merituen aipatzea.

Hamargarren.- 1.- Ordainsari osagarriak jasotzeko merituen ebaluazio-eskaerak Gobernu-kontseiluari eman beharko zaizkio, hark UNIQUALi (Euskal Unibertsitate-sistemaren Kalitatea eta Akreditazioa Ebaluatzen duen Agentzia) eman diezazkion esanaz; hura ebaluatzeko, eta honekin batera doan ereduaren arabera egingo dira. Eskariak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da deialdia EHAOn argitaratu denetik, eta EHUko Erregistro Orokorretan aurkeztu beharko dira edo 30/1992 Legearen, azaroaren 26koa, 38.4 artikuluan zehazten den bideetarik bat erabiliz, Herri Administrazio eta Prozedura Administrazio Komunen Erregimen Juridikoarena, 4/1999 Legeak, urtarrilaren 13koak eraldatua.

2.- EHU Erregistro Orokorrek dira Leioako Kanpuseko Unibertsitatearen Errektoretzan kokatutakoak eta baita Gipuzkoako Kanpuseko Errektoreordetzan daudenak ere: Ignacio Barriola eraikina, Elhuyar enparantza, 1 (Donostia) eta Arabako Kanpuseko Errektoreordetzaren egoitza: Comandante Izarduy kalea, 2 (Vitoria-Gasteiz). Bulego horiek eta EHUko Erregistro Orokor diren Zentroak EHUko 2001eko martxoaren 19ko Ebazpenean (2001eko apirilaren 2ko EHAO) eta Interneteko helbide honetan ikus daitezke: www.ehu.es/oficinas_registro.html

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Kanpusetan dauden Erregistro Orokorren ordutegia hauxe da: astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00ak arte, goizez, eta 15:00etatik 16:30ak arte, arratsalde. Ostiraletan eta udako jardunaldi jarraituan, Aste Santuko txandetan eta Gabonetakoetan, ordutegia 9:00etatik 13:00ak arte izango da.

3.- Eskakizuna Correosen bulegoetan entregatuko duten interesatuek, 1829/1999 Dekretuak, abenduaren 3koa, azaltzen duen moduan egin beharko dute, non posta-zerbitzuen prestazioa arautzen den eta ondorengoa dioena:

"Gutunazala irekita dutelarik eta bidali nahi den dokumentuaren lehen orriko hasieran argi eta garbi adierazita bulegoaren izena eta data, eta han noiz jaso den (ordua eta minutua) entregatuko dira hiritarrek edo erakundeek Herri

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

Administrazioei bidalitako eskakizunak, idatziak eta jakinarazpenak posta-zerbitzu unibertsala burutuko duen eragilearen bitartez. Igorleak bidalitakoaren egoera idatziz jartzea ere eska dezake, bidali nahi den dokumentu nagusiaren kopia, fotokopia edo bestelako erreproduktzioaren lehen orrian datorren bere identitatea jatorrizkoarekin alderatu eta gero, hura dagokion administrazio-erakundearen aurrean aurkeztu duela egiaztatzen duen agiri bezala eraman beharko dena.

Adierazitako pausoak eman eta gero, igorleak berak itxiko du gutunazala eta posta-zerbitzuko langileak bete eta entregatuko du onartu denaren frogagiria, zeinaren ondoa bulegoan gordeko den.

Posta-zerbitzu unibertsala gauzatuko duen eragileak onartutako igorpenak, artikulu honetan bildutako pausoak emango dituenak, behar bezala aurkeztutzat emango dira, 30/1992 Legearen 38 artikulua araber, azaroaren 26koa, Herri Administrazio eta Prozedura Administrazio Komunaren Erregimen Juridikokoa."

Hamaikagarren.- Deialdia bi fasetan ebatziko da: hasteko, C mailari dagozkion ordainsari osagarriak esleituko dira eta, ondoren, B eta A mailari dagozkienak.

Hamabigarren.- C mailari dagozkion ordainsari osagarrien esleipena.

1.- Irakasleen Errektoreordeak, sindikatuen ordezkariak entzun eta gero, UNQUAL Euskal Unibertsitate-sistemaren Kalitatea eta Akreditazioa Ebaluatzen duen Agentziari bidaliko dio ebaluatze aurkeztu diren eskakizunen zerrenda, aipaturiko agentziak eskatutako dokumentazioarekin batera.

2.- Interesatuei jakinaraziko zaizkie UNQUAL Euskal Unibertsitate-sistemaren Kalitatea eta Akreditazioa Ebaluatze Agentziaren Zuzendariaren ebaluazio-ebazpenak. Badago Ebazpen horren aurka, aukeran, Agentzia horren aurrean berraztertze errekurtsoa aurkeztu, hile bateko epean edo Administrazioarekiko Auzia zuzenean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hileko epean. Bietan, ebazpena jakinarazi denetik hasita.

3.- EHUKo Gobernu-kontseiluak C mailako osagarrien esleipenen proposamen bat onartuko du, UNQUAL Euskal Unibertsitate-sistemaren Kalitatea eta Akreditazioa Ebaluatze Agentziak ebaluazioa egin eta gero, eta proposamen hori Gizarte Kontseiluari bidaliko zaio hark onetsi eta esleipen eraginkorra burutzeko.

4.- Gizarte Kontseiluak emandako eskaeren zerrenda bidaliko dio EHUri, zenbatekoa eta noiz onetsi den adieraziz, hark ordain ditzan. Era berean, osagarriak nola banatuko diren jakinaraziko die interesatuei banan-banan.

Hamahirugarren.- B eta A mailari dagozkien osagarrien esleipena.

1.- Behin Irakasleen Errektoreordeak zehaztutako denbora-baldintza egiaztatuta (5 edo 10 urte zerbitzuan), UNQUAL Euskal Unibertsitate-sistemaren Kalitatea eta Akreditazioa Ebaluatze Agentziari bidaliko dio ebaluatze eskaeren zerrenda, eskatzaile bakoitzak aurkeztutako agiriarekin batera.

Gizarte Kontseilua - Consejo Social

2.- EHUko Gobernu-kontseiluak A eta B mailetako osagarrien esleipenen proposamen bat onartuko du, UNIQUAL Euskal Unibertsitate-sistemaren Kalitatea eta Akreditazioa Ebaluatzeko Agentziak ebaluazioa egin eta gero, eta proposamen hori Gizarte Kontseiluari bidaliko zaio hark onetsi eta esleipen eraginkorra burutzeko.

3.- UNIQUAL Ebaluatzeko Agentziako Zuzendariaren ebaluazio-ebazpenak interesatuei jakinaraziko zaizkie. Badago Ebazpen horren aurka, aukeran, Agentzia horren aurrean berraztertze errekurtsoa aurkeztu, hile bateko epean edo Administrazioarekiko Auzia zuzenean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, bi hileko epean. Bietan, ebazpena jakinarazi denetik hasita.

4.- Gizarte Kontseiluak emandako eskaeren zerrenda bidaliko dio EHUri, zenbatekoa eta noiz onetsi den adieraziz, hark ordain ditzan. Era berean, osagarriak nola banatuko diren jakinaraziko die interesatuei banan-banan.

Hamalargarren.- Horretarako, 2005eko urtarrilaren 1 arte eskainitako zerbitzuak hartuko dira kontuan, Bigarren bat Xedapen Iragankorrak dioena galdu gabe, 209/2006 Dekretuaren azken puntua, urriaren 17koa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen ordainsari osagarrien ingurukoa.

Hamabosgarren.- Irakasleek eta Ikertzaileek jardunaldi partzialan egingo balute lan, ordainsari osagarriak jardunaldiarekiko proportzioan izango lirarteke.

Hamaseigarren.- Ebaluazio positiboak eta ordainsari osagarrien esleipenak bost urteko iraungipena izango dute, deialdi honetatik hasita. Eskatzaileak ezingo du osagarriak esleitzeko beste deialdi batera aurkeztu iraungitasun-epe hori igaro den arte.

XEDAPEN OSAGARRIA

Deialdiko tramuen eta mailen ebaluaziorako eskatzen diren urteak zenbatzeko, deialdi ofizialeko diru-laguntza jaso den bitarteko denbora ere hartuko da kontuan (EHU, Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa), Unibertsitatean gauzatu bada.

ERREKURTSOAK

Xedapen honek bide administratiboa agortzen du. Honen aurka, urriaren 26ko 30/1992 Legearen 107 artikuluetan eta ondorengoetan biltzen dena betez, Herri Administrazioen eta Prozedura Administrazio Komuneak, berraztertze eskaera aurkeztu ahal izango zaio Gizarte Kontseiluari, argitaratu denetik hile beteko epean edo Bilboko Administrazioarekiko auzi-errekurtsoko Epaitegian Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu, argitaratu eta bi hileko epean.”